

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2022ko abenduak 30 · 1253 zenbakia

## 2022 URTEARI AGUR



## Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen  
zune mugikorrarekin  
eta irixi  
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2, 29  
Telf.: 943 201 844 - EIBAR  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



## Urrutira heltzeko modu bakarra dago. *Hurbil egotea.*

Gero eta gehiago bizi gara eta nola zahartu erabaki nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia zainketen etorkizuna lantzen ari da Etorkizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gero eta zaintza pertsonalizatuagoak, komunitateari lotuagoak daudenak eta berritzaileak. Datozen 8 urtetan 39 jarduketa garatuko dira zaintzen duen eta nola zaindua izan nahi duen erabakitzen duen lurraldea izateko. Gure etorkizunaren alde lantzen ari diren gizarte-politikak, orain.

Etorkizuna Orain.

[etorkizunaeraikiz.eus](http://etorkizunaeraikiz.eus)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ORAIN

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Badoa 2022. urtea, baina mila irudi laga dizkigu. Atzera begira jarri eta bideo honetan batu ditugu urteak lagatako hainbat bizipen, inoiz ahaztu ez dezagun.

etakitto.eus



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

# Astean esanak



Hiriguneez trantsizio energetikoarekin duten benetako konpromiso hori hor badago, adibidea eman dezakete, esaterako, Urgullen haize-sorgailu bat jarritz. Hiri osotik ikusi eta jendeari energia aurreztea zein garrantzitsua den gogorarazteko bezain handia. Bide batez, frankistek han goian jarritako esperpentoa ezabatu ahal izango lukete. Proposamen hori beste hiriburuetara ere zabaldu daiteke.

**ISIDRO ESNAOLA, zutabegilea**

Askotan esaten da buruz-buruko txapelketan behetik datorrenak abantaila duela aurretik partidua jokatu delako; ba ez dut inor ezagutzen, finalerako txartela izanda, aurretik beste kanporaketa jokatzeko eskatu duenik. Nik botillerorik onena izan nuen, gehien zekiena, Atano III.a. Zer esaten zidan? Ezer ez! Final baten aurrean, azken hamabost egunetan pilota konturik aipatzen ez duen hura delako aproposena. Noizbaiten proposatu izan nion aurkariari bi botilleroak berarentzat izatea, trukean lehen tantoa niretzat; ez zuen onartu.

**LUZIANO JUARISTI "ATANO X", pilotari-ohia**

Mendebaldeko edozeini bere burua azaltzeko eskatuz gero, dentista dela, sukaldatzea gustatzen zaiola... horrelakoak kontatuko dizkizu. Munduko beste tokietan, ordea, ez dakit noren semea naiz, nire klana hau da... esango dizute. Horrek baditu bere ondorioak. Adibidez, imaginatu lagun batekin autoan zoazela abiadura handian eta oinezko bat harrapatzen duela. Epaiketan abokatuak eskatuko dizu haren alde egitea, kartzela saihesteko. Bada Kanadan inork ez luke ahalkorik onartuko eta egia esango luke. Beste herrialde batzuetan, ordea, lagunak izatea justiziaren aurretik ipiniko lukete.

**JOSEPH HENRICH, Biologian adituwa**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONUTS** → Oso ona, on puska denari esaten zaio. “Baiña, ziur nagon ha onutsa zeruetan izango dala”.

**ONUTSA ONUTSA, KAKUTSA** → Pertsona onegia, batzuetan, hutsaren hurrengo, gauza dela esateko erabiltzen den erreforma.

# 1960

## Mendizale talde bat Urko puntan

Juan San Martinen argazki bildumako irudi honetan ikus daitekeen moduan, aspalditik dago Urte Berri egunean Urko mendira igotzeko ohitura Eibarren. Albo batean Indalecio Ojanguren argazkilaria ageri da.



## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 30</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ZAPATUA 31</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 1</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 2</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 3</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>EGUAZTENA 4</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 5</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 6</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)

## Hildakoak

- **Jose Ignacio Alberdi Zubiaurre.** 83 urte. 2022-12-23.
- **Hipolito Martinez Martinez.** 94 urte. 2022-12-26.
- **Jose Ramon Arozena Iriondo.** 62 urte. 2022-12-26.

<b>ZAPATUA 7</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 8</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ASTELEHENA 9</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 11)
<b>MARTITZENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>EGUAZTENA 11</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 12</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 11)
<b>BARIXAKUA 13</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>GAUEZ BETI,</b> 2023an, <b>Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)

## Jaiotakoak

- **Muhammad Arham Irfan.** 2022-12-16.
- **Nora Ortiz Lopez.** 2022-12-18.
- **Bader Lamoun.** 2022-12-20.
- **Omar Errahil Cossio.** 2022-12-23.
- **Amira Bilhassau.** 2022-12-24.
- **Elene Bermudez Trujillo.** 2022-12-24.

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitela	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



## Kantu kalejira alaia egin zuten Olentzerok eta Mari Domingik

Haur eta heldu mordoak bildu zituen zapatu goizean Urkizutik abiatu zen kantu kalejirak. Eibartarrek harrera bero-beroa egin zieten Olentzero, Mari Domingi eta laguntzaile guztiei, eta Gabonetako kantu ezagunak abesten bete zuten Untzagarainoko ibilbidea. Bertara ailegatuta, Olentzerok udaletxe barruan egin zien harrera etxeko txikienei eta azken momentuan idatzitako gutunak eskura hartu zituen.



## Hiru Erregeen kabalgata egingo da urtarrilaren 5ean, Untzagan hasita

Ohiko martxan, Hiru Erregeen kabalgata egingo da herriko kaleetan zehar urtarrilaren 5ean. Aurretik, baina, dantza emanaldia egingo dute Ipurua dantza garai-kide taldeak, Eibarko Balletak, Kaxak eta Ipurua Gimnasia Erritmika taldeak Ipurua kiroldegian, 17:00etan hasita. Melxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoek karro-

za gainean egingo duten kabalgata, berriz, 19:00etan irtengo da Untzagatik, Eibarko Musika Bandako musikoei, antortxadun pajeek eta beste hainbatek lagunduta.

Herriko kaleetan ibili eta gero, Untzagan amaituko da kalejira. Eta, jarraian, Erregeek umeen gutunak jasoko dituzte udaletxeko patioan.





## Bazkide ez direnek ere har dezakete parte bonuak banatzeko kanpainan

Eibar Merkataritza Gune Irekia (EMGI) elkartetik gogora eka- rri nahi dute bertako bazkide ez diren establezimenduek ere har dezaketela parte Astelena haur parkerako eta Errebalgo izotz pistarako bonuak banatzeko kanpainan. Horretarako 943206669 telefono zenbakira deitu dezakete eta hortxe azalduko diete zer egin behar duten kanpainarekin bat egiteko. Izan ere, aipatutako jardueretarako txartelak oparitzeko kanpainak, Udalaren laguntza izateaz gain, Eusko Jaurlaritzako Tu-

rismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren laguntza ere badauka eta, horregatik, ez da beharrezkoa EMGI-ko bazkidea izatea parte hartu ahal izateko. Astelena haur parkera eta izotz pistara sartzeko txartelak eskuratzeko bezeroek zerbait erosi beharko dute: gatatutako 20 euro bakoitzeko bono bana emango zaie, establezimenduaren zigilu-markarekin. Bono bakoitzarekin ordu eta erdiz doan ibili ahal izango da haur parkean edo, nahiago izanez gero, ordu erdiz izotz pistan patinatzen aritu.

## Haurrei oparitzeko jostailuak bilduko dituzte gaur Untzagan

Eibarko Gazte Sozialistek, Herriaren Etxearekin eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean, haurren artean banatzeko jostailuak biltzeko kanpaina antolatu dute, Gabonetan haur guztiek jostailuren bat jasotzea ahalbidetzeko. Asmo horrekin, gaur arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara, Untzagan egongo dira, bertan ipiniko duten karpan jendeak eramaten dituen jostailuak hartzeko prest. Arduradunek nabarmendu dutenez, jostailuak erabili barikoak, hezitzaileak, ez sexistak eta indarkeria pizten ez dutenak izan behar dira. Trukean txokolate beroa bizko- txoekin emango dute.



## Haur eta familientzat umorezko antzezlanak eskainiko dute martitzen arratsaldean

Martitzenean, urtarrilaren 3an, ikusi ahal izango da “Batetik bestera”, hiru urtetik gorako haurrei eta familiei zuzendutako umorezko antzezlanak, Coliseo antzokian. Patricia Urrutiren lan honek giza migrazioei buruz hitz egiten du, hegaztien migrazioen bidez. Egileen berbetan, “txoritxoak izango gara, hausnarketarako abiapuntu

izateko asmoarekin. Gehienek bi- daiatzeari ekin diote beharragatik, eta ez dakite itzuliko diren. Zer oztopo aurkituko dituzte bidean? Zein ote da haien helmuga?”. Zuzendaria Elena Olivieri da eta antzezleak, berriz, Patricia Urrutia, Juanjo Otero eta Jon Zumelaga. Euskaraz izango da eta sarrerak 5 euro balio du.



## Mankomunitateak 15.934.487 euroko aurrekontua onartu du

Debarbarrena eskualdeko Mankomunitateak 2023rako 15.934.486 euroko aurrekontua onartu du, iaz baino 1.043.921 euro gehiago (%7,01). Adierazi dutenez, “urte herrirako aurrekontuaren helburua gaur egun ematen dituen zerbitzuen kalitateari eustea da, hobekuntzak txertatuz eta gastuei eusten saiatuz, Mankomunitatea osatzen duten udalei kuotak gehiegi ez handitzeko”.

Ahalegin ekonomiko nagusia hiri-hondakinen gaikako bilketa eta kudeaketa hobetzeko partidetan egin da, baita Jasangarritasun Energetikoaren Plana, zerbitzuen digitalizazioa eta Eibarko Transferentzia Estazioaren eraberritzea bezalako proiektuen garapenean ere.

Iosu Arraiz Mankomunitateko presidentea nabarmendu duenez, “aurrekontu hauek Mankomunitatearen konpromisoa eta

apustua sendotu nahi dute, 2030 Agendaren garapen iraunkorreko helburuak lortzeko, Debarbarrena eskualde jasangarriagoa izan dadin. Horrez gain, gaikako bilketa tasa hobetzen jarraitzea dugu helburu, egun %54,69an dagoena”.

Ahal den heinean, Udalen kuotei eustea eta gastuak baliabide propioekin ordaintzen saiatzea da helburua. Horretarako, Mankomunitateak 650.000 euroko finantzaketa jasoko du Ecoembes-en eskutik, ontziak eta papera gaika biltzeagatik, eta sentsibilizazio-kanpaina bat ere finantzatuko du erakundeak.

Horrez gain, Eibarko Udalak kartelak kentzeko eta fatxadak garbitzeko zerbitzua kontratatu dio aurten ere, 77.000 euroko diru sarrerak bermatuz, eta hidrogarbigailua indartzeko zerbitzuagatik 149.815 euro ordainduko dizkio Udalak Mankomunitateari.



## Jaso dute Eskozia La Brava zozketatutako Gabonetako otarra

Eskozia La Brava foball zaleen taldeak zozketatu duen Gabonetako otarra 1.842 zenbakiari egokitu zaio eta, argazkian ikus dezakezuen bezala, irabazleak jaso eta eraman du sari ederra. Zorionak eta on egin!



## Aterpetxeko arduradunen esker ona Eibarko herriari

Eibarko neguko dispositiboko arduradunek beraien esker ona azaldu nahi diete jantzitegia martxan ipintzen lagundu duten guztiei: “Aterpetxean jantzitegia osatzeko laguntza deialdia ...eta kitto! aldizkarian plazaratu genuenetik egun batzuk baino ez dira igaro, baina ordutik hainbat eta hainbat herritar hurbildu zarete guregana eta, jasotakoari esker, jada badugu jantzitegi duina eta osatua. Lerro hauen bitartez gure eskerrik beroena azaldu nahi diogu Eibarko herriari, jasotako erantzunarengatik”.



HELDU! programaren lehen edizioa Eibarko Udaleko Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak sustatu eta diseinatu du, Debegesa eskualdeko garapen-agentziarekin lankidetzan. Izaera berritzailea duten sei proiektu estrategikok parte hartu dute, eskualdeko ehun ekonomikoa indartzen lagunduko duten enpresa-jarduera berriak sortzeko asmoz. Programak oso emaitza onak izan ditu.



ANA TELLERIA • Eibarko Udaleko Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza saileko burua

## “Beldurrak kentzeko eta proiektuei forma emateko programa da Heldu!”

### Zergatik erabaki zuen Udalak Heldu! ekintzaileen-tzako programa abian jartzea?

Programaren helburua da ideia edo proiektu bat duten pertsonak beharrezkoak diren tresnak eskura edukitzea, egitasmoa gauzatu eta ekintzailetzarako pausoa emateko. Ekintzailetza-programa asko daude, baina beldurrak kentzeko eta proiektuari forma emateko programa baten beharra ikusten genuen. Sei proiektuak hautatu ondoren, laguntza-prozesua irailan hasi zen eta abenduaren erdialdera arte iraundu, Debegesako teknikariek koordinatuta. Bederatzi parte-hartzaileek 100 ordu baino gehiagoko formazioa jaso dute, adituen aholkularitzan eta tutoretza pertsonalizatuan. Aholkulari-taldea osatzen duten pertsonak esperientzia handia dute bai ezagutzarloan, bai enpresa-proiektu berriak abian jartzen. Parte-hartzaileek negozio-ideiak bideragarriak diren ikusteko aukera izan dute.

### Zer balorazio egiten duzue? Pozik zaudete emaitzekin?

Emaitzak onak izan dira. Lau hilabete hauek pasata, hasieran erakutsi zuten ilusioa indartuta atera dela ikusi dut. Oso motibatuta ikusi ditut, eta horrek asko pozten nau. Aholkularitza espezializatua izan dute Debegesaren aldetik eta kontsultorietako adituen aldetik, eta horrek lagundu die ideia finkatzen. Esango nuke programak balio izan diela lurra hartzeko eta beldurrak kentzeko. Balio izan die segurtasuna hartzeko (batez ere gazteenei), onerako eta txarrerako gauzak bere tokian jartzeko eta, kasu batzuetan, ideiak berbideratzeko. Orain guztiek dakite negozio bat muntatzeko zer behar den, zer zailtasun dauden, laguntza motak... Ikusi dute komunikazioa eta lantaldea oso garrantzitsuak direla, pausoz pauso joan behar dela... Gainera, Debegesako enpresa-inkubagailu berrian denak elkarrekin egon dira eta horrek elkar ezagutzeko eta giro ona izateko balio izan du.



### Udalaren aldetik programarekin jarraitzeko asmoa dago?

Enpresa bat sortu nahi dutenentzat Heldu! bezalako programa bat egotea oso garrantzitsua dela uste dugu. Beraz, datorren urtera begira beste edizio bat jarriko dugu martxan. Orain, hausnarketa eta ebaluazioa egiten ari gara. Ekintzaileekin eta parte hartu duten aholkulari guztiekin hitz egingo dugu. Esan behar dutena entzutea oso ezinbestekoa da; guk ere ikasi egin nahi dugu. Datorren urtera begira helburua bera izango da, baina seguru asko aldaketa edo ajuste txiki batzuk egongo dira, beti ere hobekuntzak sartzeko asmoarekin.



## Natura eta ingurumenarekin harremanetan egoteko parke berria egin dute Estixan

Gabonen aurretik zabaldu du Udalak Estixa parkea Milafloresen, Sakun gainetik doan Arraterako bidean. Bertan zegoen parkea berritzeko lanek 226.757 euroko aurrekontua izan dute eta, horri esker, ingurumenari eskainitako gunea sortu dute. Aurreko asteaz geroztik erabili daitekeen parkean haurrek jolastu dezaten hainbat joko ipini dituzte, herri barruko parkeetan egon ohi direnekin zerikusirik ez dutenak. Alkatearen berbetan, “aisialdirako tokia duen baso-lorategia da eta

bertan ingurumenari buruz gozatu eta ikasteko aukera egongo da aurrerantzean, betiere naturarekin kontaktu zuzena protagonista dela”. Asmo horrekin, eta gure inguruan bizi diren intsektuei buruz gehiago jakin nahi dutenentzat, intsektuentzat hotela egin dute. Udaleko gobernu taldeak Elkarrekin Podemos-ekin lortutako akordioa da proiektu honen abiapuntua eta, parkearekin batera, inguruan ibili nahi dutenentzat, zailtasun maila ezberdina duten bi ibilbide ere prestatu dituzte.

## Eibarren zegoen Iberdrolaren arreta-puntu bakarra desagertu da

Juan Gisola kalean dagoen Benicoba dendan aritu dira orain arte Iberdrolaren bezeroak artatzen, baina gaur izango da bertan zerbitzu hori ematen duten azken eguna. Aurrerantzean, Iberdrolaren bezeroen arretarako telefonora, 900 225 235 zenbakira deitu beharko da.




## “Ikusezinak. Erbestertuen haurrak” liburuaren aurkezpena Topalekuan

Bihar (abendua 31) manifestazioa egingo da, 19:00etan Untzagatik abiatuta, “Etxera bidea gertu” euskal presoen aldeko dinamikaren baitan. Horrez gain, urtarrilaren 1ean, 12:00etan, Kalamuan talde argazkia aterako dute. Eguaztenean (urtarrilak 4), berriz, “Ikusezinak. Erbestertuen haurrak” Miren Azkarateren liburua aurkeztuko dute Topalekuan, 19:00etan, egilearen parte-hartzearekin. Eta urtarrilaren 7an Bilbon egingo den mobilizaziora joateko autobusak antolatzen ari dira. Izena emateko, Guridi, Buenos eta Depor tabernetara joan daiteke (azken eguna urtarrilaren 4a, 18:00etan).



## Tokiz aldatuko dituzte eguazteneko azokak

Txaltxa Zelaian Gabonetarako barrakak ipini dituztela eta, aste honetan bezala, datorren astean ere Toribio Etxebarria kalean ipiniko dute eguaztenetako azoka txikia. Urkizuko asteroko azoka, berriz, goiko parkean izango da, behekoan izan beharrean.



**AINHOA GOMEZ***Egoaziako kooperantea*

**“Gure etxean egiten ditugun ekintzek munduko beste puntan eragiten dute”**

# urtarrila

# 1

**ANE PIKAZA***Aktorea*

**“Antzezlanak Altsasukoaz hitz egin ahal izateko aukera ematen digu”**

Eguzkiarekin eta hego-haize epelarekin igo ziren Urtora hainbat eibartar urteari hasiera emateko. Eta Gabonetako ospakizunak atzean lagata, Eibarko Pentsiodunek gogo bizi ekin zioten borrokari berriz ere. Gainera, Pentsiodunen Mugimenduak lau urte bete zituen urtarrilean eta lanean tinko jarraitzen dutela erakutsi dute urtean zehar.

Udalak Mercedes Kareaga Beka jarri zuen martxan, herriari hainbeste ekarpen egin dion emakumearen omenez. Bere biografia osatzeko deialdia izan da lehenengo, baina asko kostatu da lana aukeratzea.



Trio Medianoche taldea Antena 3 telebista-kateko 'La voz senior' lehiaketan.

Untzagako jubilatutako zuzendaritzan aldaketa egon zen eta hainbeste urtetan presidente kargua izan duen Felix Elkoroiribek Jesus Mari Iparragirreri eman zion lekukoa. Bestalde, musikatik jubilatutako ez den Trio Medianoche taldeak 'La Voz Senior' telebista saioan hartu zuen parte eta publikoa hunkitzea lortu zuen bere emanaldiarekin.

Kultura kontuekin jarraituz, Antzerki Laborategiko lehen promozioiko ikasleekin egon ginen eta demaseko esperientzia izan dela esan ziguten. Beraz, bigarren saio bat abiatu zuten otsailetik aurrera.

Kiroletan, Arrate Eibar Eskubaloiko kadete mailako nesken taldeak Gipuzkoako txapela jantzi zuen finalean Ereintza Aguaplasti 36-21 irabazita. Ipuruko kiroldegian jokatu ohi dituzten partiduetan eskubaloi taldeak eta, hain zuzen ere, Ipuruan bertan auzoaren historia islatzen duten argazki handiak jarri zituzten kaleko hormetan, tartean eskubaloi taldearenak.

Herriko beste auzo batean, ostera, gauzak puri-purrian zeuden. Izan ere, Eibarko behealde edo ekialdean bizi direnek 'No al paseo que nos entierra - Ekialdea bai' izeneko auzo elkarteak sortu zuten, "auzoa suspertu, defendatu eta zaintzeko".

Eta handik nahiko gertu, Eibarko karmeldarren elizan (Karmen kalean) kokatzen den neguko aterpeak eskualdeko etxegabeei zerbitzua eskaini zuten neguko hotzari aurre egiteko.

**10.000** erabiltzailearen iritzia jaso du Kirol Patronatuak instalazioak hobetzeko. Erisono handitzeko **16** milioi euroko inbertsioa egingo duela esan zuen Jaurilaritzak.



**AMAIUR MAYO**

*Errugbilaria*

**“Beste talde batzuekin alderatuz Eibarren zerbitu berezia izan dugu, beti egon gara batuta eta zelaian igartzen da”**



Antzerki Laborategiko lehen promozioiko ikasleen klase batean egon ginen euren jarduna nolakoa den ezagutzeko.



**MARKEL ALBERDI**

*Igerilari-ohia*

**“Joko Olinpikoen ondoren ez nion zentzurik aurkitzen igeriketari jarraitzeari”**



Eibarko Pentsiodunen Mugimenduak indartsu jarraitzen du lau urte bete ondoren.

	<p>Baimendutako harategia <b>Euskal Okela</b> Carnicería autorizada</p>	<p><b>Bidebarrieta, 20</b> Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar <b>ETXERA ERAMATEN DIZUGU</b> 943 20 16 69 f @Oberenaharategia</p>	
--	---	---	--

# otsaila

# 2



## JESUS MARIA IPARRAGIRRE

*Untzagako jubiletxea*

**“Jubiletxea eraberritu behar dugu, gauza batzuetan atzean geratzen ari garelako”**



## ANDER MAIORA

*Idazlea*

**“Pandemiak gure egoera hauskor eta hilgarria ikusgarriagoa egin du”**

Otsaila, ohiko lez, San Blas usainarekin hasten dugu herrian eta, pandemia atzean lagata, Sanblas opilak berriz bedeinkatzeko aukera izan genuen. Aurten badirudi bedeinkatutako lokarriek hobeto funtzionatu dutela. Udaleko Idazkaritza Nagusiko Estatistika Atalak kaleratutako datuen arabera, 2022ko urtarrilaren Iean Eibarrek 27.330 biztanle zituen. Kopuru horretan, 738 emakume gehiago dira gizonezkoak baino: 14.034 emakume eta 13.296 gizon, zehazki.

Antzerki Jardunaldien 45. edizioa egin zen otsailaren 22tik apirilaren lehen egunera arte, kalitate goreneko antzezlanekin. Ramon Barea eta Mikel



San Andres eliza jendez bete zen San Blas opilak bedeinkatzeko.

Losada aktoreak izan ziren hasierako solasaldiko protagonistak.

Urteurren berezi batzuk izan genituen otsailean. Batetik, Armagintzaren Museoak 15 urte bete zituen eta hainbat erakusketa berezi jaso ditu aurten ere. Eta bestetik, Odisea elkarteak hamar urte bete ditu aurten eta hainbat ekintza antolatuta dituzte mahai-jokoak, rol-jokoak, wargameak (gerra-jokoak), estrategia-jokoak eta abarrak herrian hedatzeko asmoz.

San Andres parrokian XVII. mendeko kantu-liburu handi bat jarri zuten ikusgai eta Kon Bagues musikologo eta musika-artxibozainak liburuaren inguruko hitzaldia eskaini zuen.

Udalbatzak 2022ko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien baiezko botoei esker. Bestetik, aurrera begira, gure herriaren antolamendua nolakoa izango den definitzeko oinarriko tresna izango den Hiri-Antolamendurako Plan Orokor berria idazten ziharduten Udalean.

Kiroletan, Pello Osorok neguko triatloiko Espainiako txapela jantzi zuen beste behin ‘Valle de Anso’-n, eta Amaña auzoan txarkurkros txapelketa egin zen Euskadiko Txarkurkros Ligaren barruan, parte-hartze bikainarekin.

Otsailaren amaieran Aratosteak ospatu genituen, berriz ere normaltasun osoz. Dena dela, zapore txarrekin amaitu genuen hilabetea, Julen Zabaleta ‘Yulen’ marrazkilaria hil baitzen 101 urterekin.

**1.956** kontsulta artatu zituzten KIUB-en iaz.

**44,7** milioi euroko aurrekontua onartu zuen Udalbatzak 2022rako.



**ERNESTO BARRUTIA**

Aktorea

**“Hasiberriak izanik, antzerki-taldeko kide batzuek demaseko talentua dutela erakutsi dute”**



**ANDONI MAYO**

Txakur-kroslaria

**“Txakurrentzat joko modukoak dira lasterketak, asko gozatzen dute korrika egiterakoan”**



Zaldibarko zabortegia amildu zenetik bi urte bete ziren eta manifestazioa egin zen Eitzagaraino.



Koko Dantzekin eman zitzaizen hasiera hainbeste itxaron genituen Aratosteei.

Amets Arzallus bertsolari, kazetari eta idazleak 'Miñan' liburuari buruz jardun zuen Armeria Eskolan.

martxo

3



**ANE SARASUA**  
UEUko idazkaria

**“Eibarrek arnagune akademiko bat dauka Markeskua jauregian”**



**AINHOA ALDZABAL**  
Filologoa

**“XX. mendea mundu mailako danbada izan zen emakumeen eskubideei dagokienez”**

Eusko Jaurlaritzan Debabarrena eskualdea suspertzeko ponentzia egiten ibili dira urte osoan zehar eta eskualdeko hainbat eragilek eta erakundek hartu dute parte bertan.

Udako Euskal Unibertsitateak 50 urte bete ditu aurtun. 2000. urtetik Eibarko Markeskua Jauregian du UEUK bere ikastetxe akademiko nagusia, eta horrek ahalbidetu du, batetik, udako eskaintzatik urte

osokora salto egitea, eta, bestetik, aurrez aurreko modalitateaz gain, online eskaintza egituratua ere eskaini ahal izatea. Urteurren berezia izanda, hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtean zehar eta aipagarria da martxoaren 30ean, Korrika aitzaki hartuta, Markeskuan prestatu zuten Barredromoa. Berta Mirari Martiarenak, Olatz Perez de Viñasprek, Ana Galarragak, Leire Narbaizak, Oier Araolazak, Gorka Guenagak, Koldo Garciak eta Josu Lopez Gazpiok bakarrizketak egin zituzten, Idoia Torregaraik aurkeztutako saioan.

‘Heldu/leku feministak’ eta ‘Iraultza feminista izango da edo ez da izango’ izan dira aurtengo Martxoaren 8ko goiburuak. Mugimendu feministak morez jantzi zuen herria martxoan zehar eta, manifestazioaz gain, hainbat ekintza egin ziren hilabete guztian.

Ukrainako gerraren oihartzuna Eibarreraino iritsi zen eta herrialde horrekin lotura duten eibartarrekin egon ginen gerra nola bizi zuten jakiteko. Gainera, herriko erakunde eta bizilagun ezberdinek laguntza eskaintzeko hainbat kanpaina antolatu dituzte urtean zehar.

Martxo amaiztearekin batera, Rialtoko merkatu plazako jarduna ere amaitu zen eta Erreal Plazako kokaleku berrian hasi ziren horietako batzuk, orain dela 15 urte derrigortuta laga behar izan zuten toki beretsuan.



Rialtoko merkatu plazak atek itxi zituen martxoan eta bertan zeuden baserritarrak Erreal Plazara joan ziren.

Bertoko **500** zuhaitz landatu zituzten Zuhaitz Egunean.

Udalak **190.000** eman zituen Beheko Tokia eta Untzagako jubiletxea konpontzeko.





**GORKA GARATE**

*Grabatzailea*

**“Gero eta grabatzaile gutxiago dago eta herriko ondarea galtzen ari da”**



**LIUDMYLA GORTOVLIOK**

*Eibarko ukrainarra*

**“Europarekin edo Europa barik, gure bidea egin nahi dugu”**



Felix Elkororibek omenaldi beroa jaso zuen Coliseon Untzagako jubiletxean hainbeste urtetan egindako lanarengatik.



Mugimendu feministak Eibarko kaleak hartu zituen Martxoaren 8an.

Eibarko Baso Biziak elkarteak hainbat ekintza egin du urtean zehar eta, tartean, bazkide berriak egiteko kanpaina abiatu zuen martxoan.

F. Calbetón  
22-24

**Larragest** EXPO

943 200 012  
690 610 715

**INMOBILIARIA / ASEGURUAK**



**JOSE AGUSTIN LARRAÑAGA**

*Eibarko Artisten Elkarte*

**“Gure erakusketan pintura da nagusi, oleokoa batez ere”**

**apirila**  
**4**



**JULEN LETURIONDO**

*Musikaria*

**“Kantuekin energia berezia sortzen da, taldekideekin orduak partekatuz lortzen dena”**

Apirilaren 1ean Korrika pasa zen Eibartik. Ehundaka eibartar irten ziren kalera pandemia osteko lehen Korrika agurtzeko eta, ahal zen neurrian korrika egiteko, euria, hotza eta txingorra ere egin zuen arren.

Eta korrika egiten jarrita, eibartar askok ‘Antxitxika Eibar’ erronkarekin egin zuten bat, Wellk ize-neko telefono mugikorretako aplikazioaren bitartez. Ekimenarekin herritar guztiak jarri nahi zituzten martxan eta, gainera, sariak banatu zituzten partehartzaileen artean.

Korrikan gutxi balitz, bizikleta gainean ere izan genituen protagonistak apirilean. Punta-puntakoak



Negua oso hotza izan ez bazen ere, elurrarekin hasi genuen udaberria. PERIKO IRIIONDO

gainera, munduko onenak. Izan ere, Itzulia Basque Country proba jokatu zen hilaren hasieran eta Arraten erabaki zen lasterketa. Ion Izagirrek irabazi zuen Eibarren hasi eta Arraten amaitu zen etapa eta Daniel Felipe Martinezek jaso zuen sailkapen orokorreko irabazlearen txapela.

Itzulia eta gero Valenciaga Memoriala jokatu zen, bi protagonista nagusirekin: Lizarte estatuko afizionatuen mailako talde indartsueneko Pablo Castrillo irabazlea eta bigarren amaitu zuen Eolo Kometako Davide Piganzoli.

Merkatu plaza zaharra bota, urteak eta urteak itxaron eta Rialtoko merkatu plaza itxi ondoren, Errebal Plazak atea ireki zituen baserritarren postuekin eta kafetegiarekin (okindegia geroago zabaldu zuten).

Eibarko Gerra Zibileko bonbardaketen eta gerrafrontearen 85. urteurrena bete da aurten eta, horren harira, Udalak zenbait ekintza antolatu zituen apirilaren 25etik maiatzaren 7ra bitartean (hitzaldia, bisita-gidatuak...).

Historiarekin jarraituz, Josu Martinez 2019ko Juan San Martin bekaren irabazleak ‘Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema, Gure zinemaren hizkuntza’ ikerketa liburua aurkeztu zuen, euskarazko zinemaren historia ardatz duen lana.

Greziako errefuxiatuentzat **15** tona janari bildu zituen Zaporeak elkartearen erronkak. Dendarien Elkarteko **126** dendek hartu zuten parte Erosketen Ibilbidean.



**NAHIARA MUGERZA**

DEPARKELeko idazkaria

“Parkinsona daukatenei  
bizi-kalitatea hobetzen  
laguntzen diegu”



**JESUS GUTIERREZ**

Historialaria

“Herriaren %75 txikituta  
geratu zen bonbardaketen  
ondorioz”



Urte asko itxaron ondoren, Errebal Plazak ateak zabaldu zituen.



Ion Izagirre eta Daniel Felipe Martinez irribartsu Arrateko podiumean.



## Zorionak eta Urte Berri On

Tfnoa. 943 20 22 39

Mobila. 617 16 33 82

egolan.eibar@gmail.com

# EGOLAN

Julian Etxebarria 7, 7-C

**AHOLKULARITZA**

eta

**GESTIOA**



## AITOR ECHEBARRIA

Musikaria

**"Guretzat ametsa da Eibarren kontzertua eskaintzea"**

Borrokarako hamaika arrazoi eman zituzten sindikatuek Maiatzaren Iean kalera irteteko: soldatak igotzeko, prekarietatearekin amaitzeko, berdintasun handiagoa izateko, ondasunak banatzea eskatzeko...

Maiatzaren hasierarekin, bestalde, udaltzainak armekin irten ziren kalera. 2018an, segurtasun arazoak argudiatuta, hainbat udaltzainek armen erabileraren alde egin zuten eta SVPE eta Erne sindikatuen eskaera egin zuten. Epaileek arrazoa eman zieten eta udaltzainak suzko armekin joan behar dira orain.

Bi urteko etenaldiaren ondoren Pertsona Nagusien Hamabostaldia itzuli da aurten ohiko ekitaldiekin: hi-



Eibarko Baso Biziak elkarteak antolatutako irteeran Ibur-erreka eta inguruak garbitzen aritu ziren.

# maiatza 5



## BEGOÑA DEL TESO

Kazetaria

**"Euskara salbatu nahi zutenek museo batean gordetzeko salbatu nahi zuten"**

tzaldiak, emanaldiak, txangoak, lehiaketak eta beste hainbat ospakizun antolatu zituzten. Bestetik, Esperiencia Eskolaren XVII. promozioak agur esan zion ikasturteari.

Maiatzarekin batera jaietan buru belarri murgiltzeko sasoi iritsi zitzaigun. Horrela, jairik jai ibili ginen hilabete zehar: Dia das Letras Galegas, San Isidroak, Santa Kurutzeko jaiak, Euskal Jaia... Pare bat urtez zain egon behar izan ondoren, inoiz baino gogo gehiagorekin bizi nahi izan genituen.

Urteroko martxan, egitarau biribila osatu zuten Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek 'Argazkilaritza Maiatzean' ekimenerako eta, horri esker, erakusketak, tailerrak, argazki-rallya eta argazkilaritza kalean izango genituen herrian bertan, maiatza osoan zehar.

Kirolari begira, Eibarko eskubaloien historia laburbiltzen duen erakusketa zabaldu zuten Errebal Plazan, Errugbiko Erreginaren Kopa Unben jokatu zuten (Cisnerosek irabazi zuen), Eibar Eskubaloi Taldeko gizona zekoak igotzetik gertu geratu ziren, Bar Txokok denboraldia borobildu zuen foball zaletuko Liga eta Kopa irabaziz eta Eibar KE-k historiako kolpe latzenetarikoa jaso zuen Alcorconen, liga amaitzeko eta 1. mailarako txartela lortzeko pare bat minutu falta zirenean Zarfino jokalaria armaginen atea zulatu eta eibarzaleen ametsak zapuztu zituzten. Gero, play-offean, Girona gailendu zitzaizen Garitanoren mutilei.

Eibarko **437** gerrako umeren izenak jaso ditu Intxorta elkarteak.  
Eibarren **700** tailer baino gehiago hutsik daude.



**ROBERTO VILLARREAL**

*Idazlea eta kazetaria*  
**“Antzinako Erroma oso basatia zen zigor kontuetan, han ez zegoen birgizarteratzerik”**



Eguzkipean ospatu genuen Euskal Jaia eta dantzak ikusi ahal izan genituen Untzaga plazan.



**ITSASNE GALLASTEGI**

*Psikologoa*  
**“Adimen emozionalak ez du inongo sekreturik, guztiok dugun gaitasuna da, baina landu egin behar da”**



Eibarko arroka bolkanikoak, orain dela 110 milioi urtekoak, ezagutzeko ibilbide geologikoa egin zuten.

• **tartak**  
 • **enkarguak**  
 • **etxera**

Bideberrieta, 28  
 ☎ 943 20 79 73

merchandising  
 serigrafia  
 lanerako erropa

www.publiresa.com  
 publiresa@publiresa.com  
 943 701 497 / 615 799 419  
 Armagin, 3-5 behea

ekaina

6

**AINARA UNANUE**

Aktorea

**“Lur jota amaitzen ditut ikuskizunak”****IDOIA ARGOITIA**

Eibarren Akebai

**“Euskaraldia arrakastatsua izateko herri-batzordeak indartu nahi ditugu”**

Maiatzean hasitako jaiek jarraipena izan zuten ekainean. Urkiko jaiek ospatu genituen hilaren lehenengo asteburuan eta gero, San Juan jaien atarian, ekintza ugari egin ziren herrian. Azkenean, 23an, jai nagusiak eztanda egin zuen eta pandemia osteko lehen Sanjuanak ospatu genituen herrian. Kaleak jendez, musikaz, dantzaz eta kolorez bete genituen.

Uda bereziki bero eta lehorra izan dugu eta kanpoko igerilekuak aukera zoragarria izan dira pixka bat freskatzeko. Aurten, gainera, inolako mugarik gabe, nahi beste denbora egon ahal izan gara bertan. Ekainaren 11n zabaldu zituzten ateak eta irailean itxi.

Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Euskal Herriari bira eman zion ekainean, “1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoak eta zaintza lana partekatzea” aldarrikatzeko, eta hilaren 14an Eibar zeharkatu zuten. Hau izan zen Eibarko Pentsiodunen azken ekimena irailean berriz borroka itzuli aurretik. Bestalde, Gipuzkoako suhiltzaileen kolektiboak bere haserrea erakutsi nahi izan zuen eta Untzagan elkartu ziren San Juan bezperan, herritarrei bizi duten egoera ezagutarazi eta beraien gatazkaren berri emateko.

Ekainaren 9an, Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatzen zela aprobetxatuta, Udal Artxiboak argazki


zaharren proiektzioa egin zuen, udaletxeko azken pisuan dagoen Artxiboaren zati txiki bat kalean erakusteko. Proiektzioan 656 argazki aukeratu zituzten.



Herriko hainbat tabernarik antolatutako Kaletarte ekimenak herriko kaleak kulturaz bete zituen.

Eibartarren **%7,3k** zarata-maila handia jasaten du.

Eibarko Udal Artxiboan **300.000** argazki baino gehiago daude.



**ALEX ROBLEÑO**

*E-kiroletan aditua*

**“E-kirolekin pandemiak gertatu behar zen zerbait azeleratzea eta katalizatzea lortu du”**



**IRAIDE ANSORENA**

*Musika Eskolako zuzendaria*

**“Musika Eskolan gauza batzuk hobetu nahi ditugu eta berritasunak ekarri”**



Eibar Eskubaloia Ikurua jokatu zuen Igoera Fasea, baina ezin izan zuen helburua lortu. Hori bai, demaseko giroa bizi izan zen.



Ermua, Elgoibar, Ondarroa eta Eibarko 25 ikasle egon dira Esperientzia Eskolaren kurtso honetan.

Dultzaineroei inoiz baino harrera beroagoa egin zitzaion San Juan jaiei hasiera eman zien kalejiran.

# XXVII. Eibarko Kirol Sariak

abenduak 31  
zapatua  
12:00etan  
Coliseon



Abenduaren 31n, zapatuan, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 27. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Coliseon, eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; aurten 30 banatuko dira guztira. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik. Berritasun bezala, ekitaldira joaterik ez duzuenok ere streaming bidez jarraitu ahal izango duzue ([www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)). Eta, badakizue, 2023an Eibar Kirolaren Europar Hiria izango dela, azaroan jaso zuen tituluari esker. Egin dezagun bat, beraz, Kirola eta Euskararekin.



Pello Osoro  
SARI BEREZIA



Amaia Ugarte  
EUSKERA SARIA



Imanol Egidazu  
ATLETISMOA



Iñaki del Rey  
AUTOMOBILISMOA



Valentin Cabanzon  
BOLO-PALMA



Jose Angel Vicuña  
ERRUGBIA



Jokin Aja  
ESKUBALOIA



Ander Romarate  
FUTBOLA



Haizeder Arguiz  
GIMNASIA ERRITM.



Eduardo Vicente  
GOLF





Hodei Ezpeleta  
HERRI KIROLAK



Garikoitz Rodriguez  
HIRU TXIRLO



Asier Gomez  
IGERIKETA



Oihana Gonzalez  
JUDO



Xabier Sauri  
JUGGER



Jose Antonio Hoyos  
KARATEA



M<sup>a</sup> Eugenia Miranda  
MENDIA



Felix Conde  
PILOTA



Alberto Arizmendiarieta  
SASKIBALOA



Alberto Ferreiro  
SQUASH



Emilio Lamariano  
TIRO OLINPIKOA



Esther Pagei  
TRIATLOIA



Unai Fernandez  
TXAKURKROSA



Jon Ibarluzea  
TXIRRINDULARITZA



Asier Etxezarraga  
URPEKOAK



Zuzendaritza  
WATERPOLOA



Aitor Perez  
WU-SHU



Jaz-Zubiaurre  
SUSTAPENA



Arrate Eibar Eskubaloia  
75 URTE



Kalamua Judo Taldea  
50 URTE

**ANA TELLERIA**

Garapen Ekonomikoko  
zinegotzia

**“Enpresa bat sortzeko lehen etapatik lagundu nahi dugu, ideiek lurra hartzetik”**

# uztaila 7 8 abuztua

**ALEX DAVIES**

Musikaria

**“Gasteizeko Jazzaldian jo dugu, flipatzen nago”**

‘Pirinioetako Bidea’ egitasmoarekin Pirinioetako 300 gailurretik gora argiztatu zituzten uztailearen 2an, herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Hainbat eibartarrek hartu zuten parte ekimenean eta Kokori mendia argiztatu zuten Soralueko herri-tarrekina batera.

Uztailetan gertatu ohi den bezala, Lambretta motorren soinua entzun zen herriko kaleetan. Izan ere, XVII. Eibarko Lambretta Topaketa egin zen hilaren lehen asteburuan. Asteburu horretan bertan Amañako jaiei eman zitzaizen hasiera. Beti bezala, egitarau indartsua prestatu zuen Amañako Jai Batzordeak, Jose



Kezka dantza taldeak gerrako umeak omentzeko ekitaldi batean egin zuen dantza Galesen.

Antonio Alberdi ‘Goma’ buru. Eta jaiekin amaitzeko, San Kristobal auzoak hartu zuen lekukoa, asteburu osorako egitarau erakargarria prestatuz.

Aurtengoa urte garrantzitsua izan da Aspace Gipuzkoa elkartearentzat, 50 urte bete baititu. San Juan jaietan omenaldia jaso zuten eta handik gutxira Gorka Olañeta eibartarrarekin egin genuen berba Aspaceren inguruan.

Beste urteurren berezi bi J.D. Arraterena eta Eibar Eskubaloi Taldeak ospatu dituztenak izan dira (eurak ere omenduak Sanjuanetan). Arrateren sorreraren 75. urteurrena izan da aurtengoa eta bere lekukoa hartu zuen Eibar Eskubaloiak hamar bete ditu aurtan. Arrate taldean ibilitakoek bazkaria egin zuten uztailean.

Enpresa munduari begira, 32. Toribio Echevarria Sariak banatu zituzten. Ventipen startupak “Ideiak/proiektu enpresarialak” kategorian jaso zuen saria eta Robtrusion startupak “Enpresa Berria” kategorian.

Toribio Etxebarria da herriko historiako ikurretako bat eta, noski, bere inguruan jardun zuen Nerea Alustizak abuztuan eskaini zituen bisita gidatuetan. Bertan, herriko historia ezagutzeko ibilbidea eskaini zuen Alustizak.

Bi urtetan etorri ahal izan barik egon ondoren eta aurtan ere zenbait traba gainditu eta gero, Saharako haurrak Euskal Herrira etorri ahal izan ziren Oporrak Bakean ekimenari esker.

Saharako **5** ume etorri ziren Eibarrera Oporrak Bakean programaren barruan.

**45** Lambretta elkartu ziren urtero egiten den topaketan.



**JABI ZABALA**

*Lisker taldeko baxu-jolea*

**“Justu-justuan ailegatu gara, baina errepidean gaude berriro”**



Soraluzetik, Debatik, Itziartik eta Eibartik berrehun lagun inguru abiatu ziren Etxalar aldera, Kokori mendilerroa argizatuz. EGOITZUNAMUNO



**GAIZKA BILBAO**

*Eibar Eskubaloia*

**“Ilusioa beharrezkoa badugu ere, proiektua sendoa izan behar da”**



Gari-jotzea izan zen aurreko uztailean gure herriko Sosola baserrian.

**OFERTA**  
EPAKUSKETAKO  
**SOFAK**

urtarrilak  
**2 / 3 / 4**

koltxoak  
sukaldeak

**Karlos** ALTZARIAK

Ibarkurutze, 5  
943 20 37 15

**BOLINTXO**  
**OKINDEGIA**  
**GoZOTEGIA**

Eguneroko ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal)



**AINHOA  
ARROITAJAUREGI**

*Musikaria*

**“Musikari baten ikuspegitik oso aberasgarria da irratian lan egitea”**

**iraila** 9



**ANE EZENARRO**

*Bertso gai-jartzailea*

**“Guk islatu nahi dugunaren arabera hasten gara gaiak zehazten”**

Arrateko jaiak inoiz baino indartsuago etorri ziren aurten eta jendeak inoiz baino gogo gehiagorekin hartu zituen. Eguraldia lagun, Arrateko zelaia bete genuen eibartarrok eta, abuztuko oporretatik bueltan, ikasturteari hasiera emateko modurik onena izan zen. Berritasunak izan zituen, gainera. Izan ere, Kantabria jatetxeak ateak itxi zituenez, ...eta kitto!



Eibar KEren akziodun talde batek Beti Eibar - Eibar Forever elkarteak sortu zuen, klubaren akziodunei ahotsa emateko asmoz.

Euskara Elkarteak antolatzen duen bertso-afaria Tiro Pitxoian egin zen.

Berezia izan zen Arrate Eguna, izan ere, bertan ematen zuen azken meza eskaini zuen Xabier Zubizarreta San Andres elizako parrokoak. 25 urtetan Eibarren egon eta gero, erretiroa hartu zuen Aretxabaletan jaiotako apaizak, eibartarron maitasuna jaso ondoren. Eibarren jaio eta Soraluzen bizi izan den Pedro Laskurainek hartu zuen bere tokia.

Uztailean aurkeztu bazuten ere, irailean jarri zen martxa betean Beti Eibar - Eibar Forever Eibar KEren akziodunen elkarteak. Mundu osoan sakabanatuta dauden akziodunei ahotsa emateko asmoz sortutako ekimena da, klubaren alde eginez. Gainera, Aitor Cano Zubiaurreren lagunek bere omenezko eibarzaleen taldea sortu zuten.

Herriko mugikortasunari ere beste martxa bat ematen saiatu ziren. Irailean Mugikortasunaren Europako Astea egin zen eta egitarau berezia antolatu zuten ibilaldi osasuntsuekin, bigarren eskuko bizikleten azokarekin, Nordic Walking bataioarekin eta hitzaldiekin.

Ekingune ekintzaile elkarteak 10 urte bete ditu aurten eta Leire Berasaluze elkarteak presidenteak etorkizunari baikor begiratzen diotela esan zigun, nahiz eta den-dena distiratsua ez den aitortu: “Ekinguneren esaldi motibazionalak gustatzen zaizkigu, baina bidea ez da beti polita izaten”.

**500** foballari ditu Eibar KE-k bere harrobiko egituran.

Familiei **60,10** euro eman zizkieten ikasle bakoitzeko ‘Umeak Eskolara’ programarekin.



**MAIALEN BILBAO**

*Idazlea*

**“Ezin dut maitasun istorio bat kontatu, hori ez naiz ni”**



**AITZIBER SALAZAR**

*Immigrazio teknikaria*

**“Eibarrera datozenen ezagutzak kalera ateratzea eta elkarbizitza sustatzea nahiko genuke”**



Mugikortasunaren Astearen barruan bigarren eskuko bizikleten azoka egin zen.



Arrateko zelaia jendez bete zen berriz ere giro ederrean pasa genuen Arrate Egunean.

Eibarren 25 urte pasa ondoren, San Andres elizako parrokoa izateari laga zion Xabier Zubizarretak.

# urria 1 0



## LEIRE NARBAIZA

Sagardo Eguneko  
omendua

**“Topa egin dezagun  
euskararen alde: Eibarren  
euskara indartzeko,  
erabiltzeko... eta gure alde”**



## MARTIN AZPILIKUETA

Komikilaria

**“Ez dago modu jakin bat  
komikiak sortzeko eta hori  
da komikien xarma, norberak  
bere modura sortzea”**

Udazkena kintaden sasoi izan zen. Ia asteburuero elkartu ziren urte berean jaiotakoak bazkaria edo afaria egin eta lagun artean ospatzeko. Zalantzarik gabe, herria girotu zuten hainbat asteburutan zehar.

Baina jai erraldoi bat egon bazen, Sagardo Eguna izan zen. Urriaren leian ehundaka eibartar (eta Eibartik kanpokoak) elkartu ginen Untzagan, goiz eta arratsalde sagardoaz, musikaz eta jai giroaz gozatzeko. Hurrengo egunean, urriaren 2an, Sanmigelak ospatu genituen Agiña Elkartearen eskutik.

Pentsiodunek martxa betean hasi zuten ikasturte berria eta irailean motorrak piztu ondoren, urriaren



Azken diskoa atera zutenetik bi hamarkada pasa eta gero, “Ekografiak” lan berria atera zuen Lorelei taldeak.

leian eskualde osoko pentsiodunak Eibarren batu ziren manifestazioa egiteko eta borroka horrek indartsu jarraitzen zuela erakusteko.

Klima larrialdia eta energiaren krisia guztion ahotan egon da aurten, eta gero eta ekimen eta kanpaina gehiago egin dira arazo horri aurre egiteko. Hezkuntza Esparruan urteak daramatzate gaia lantzen Climathon ekimenaren bitartez eta aurten ere hainbat proiektu landu dituzte, ahal den neurrian arazoari irtenbidea emateko.

Bi taldetan banatutako 20 ikaslerekin hasi zuen bidea Grabatu eta Damaskinatze Tailerrak. Ekimen horren bitartez, Eibarko ondare industrialia eta gure herrian horren garrantzitsuak izan diren armagile, grabatzaile eta damaskinatzaile bezalako lanbideak berreskuratzeko asmoa dute.

Herrian berreskuratu dugun beste gauza bat (edo berreskuratzear gauden zerbait) San Andres elizako organoa da. Urteetako lana egin ondoren, aurten 100 urte bete dituen organoaren zaharberritze lanak amaitzear daude eta bidea nolakoa izan den azaltzeko erakusketa egin zuten Portalean.

Martin Zalakaïn ikuskizunaren bost urteko bidaia amaierara iritsi zen urriaren 23an. Kezka dantza taldeak berebiziko papera izan du bide horretan eta inoiz ahaztuko ez duten abentura bizi izan zuten taldekideek.

**26** ikaslek hasi zituzten klaseak Esperientzia Eskolaren 18. promozioan.  
Arrate Kultur Elkartek **70** urte bete ditu eta **300** bazkide inguru ditu gaur egun.



**ANIAIZ  
ARIZNABARRETA**

*Arrate Kultur Elkarte*


**“Gure ambizioa da kulturaren inguruan zerbait egin nahi duenak topatu dezala non”**



**MAIALEN  
BELAUSTEGI**

*Bideo egilea*

**“Antzerkia ez da erantzunik emateko lekua, baizik eta galderak egiteko tokia”**



San Andres elizako organoa parrokian bertan dihardute zaharberritzen.



Kezka Dantza taldekoek Donostiko Victoria Eugenia antzokian eskaini zuten Martin Zalakain ikuskizunaren azken emanaldia.

Damaskinatu eta grabatu tailerreko ikasleak. Sasoi batean Eibarko tailer gehienetan egunero erabiltzen ziren erremintak kostata aurkitzen dira gaur egun.

**NAGORE CID***Neguko dispositiboa*

**“Askok nahi dute egoera horretatik irten, baina hori lortzeko bost egun ez da nahikoa”**

Sostoa abesbatzan aldaketa sakonak abiatu zituzten azaroan. Lau urte Sostoa abesbatzaren buruan egin ondoren, Mirengu Plazaolak taldearen zuzendaritza laga zuen eta Hibai Etxebarriak hartu zuen bere tokia. Eta ez hori bakarrik, Sostoa Eibarko Udal Musika Eskolan integratu zen. Modu horretan, Musika Eskolan hiru abesbatza daude gaur egun: umeen Juan Bautista Gisasola abesbatza, Eibarko Koro Gaztea eta Sostoa abesbatza.



Azaroko eguazten batean auto bat irauli zen Romualdo Galdos kalean.

# azaroa

# 1

# 1

**ALBERTO EGURROLA***Idazlea*

**“Azalaren azpian bizi gara, babes gutxi hainbeste negurentzat”**

Musika baino dantza nahiago dutenek, gorputza mugitzeko aukera izan zuten Plazara Dantzara saioekin. Lotuan, soltean, sokan, jautsian... denetarik dantzatzeko aukera izan zuten bertara gerturatu zirenek. Dena dela, saio gehiago egingo dira ikasturtean zehar.

Kultura kontuekin jarraituz, ikus-entzunezkoen maitaleek zita berezia izan zuten azaroaren bigarren astean, Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia egin baitzen. 47 lan proiektatu zituzten eta Sergi Marti i Maltas zinegilearen ‘La banyera’ lana izan zen irabazle nagusia.

Ondo jateko aukera izan genuen azaroan zehar. Hasteko, Gaztaiñerre ospatu genuen. Gero, Berakatz Zopa Txapelketa izan genuen. Ondoren, Pintxo Lehiaketa eta Txistorraren Eguna. Eta, azkenik, Eskola arteko bakailao-lehiaketa etorri zen, San Andres XXIX. Bakailao Lehiaketaren aurretik.

Noski, hilabetea Sanandresak ospatzen amaitu genuen. Aurten izan ditugun jaietan eguraldia ondo portatu da eta Sanandresetan ez da gutxiagorako izan. Horrela, gau, goiz eta arratsalde zende ugari ibili zen kaleetan zehar musikaz, azokaz, animaliez eta taloez gozatzen.

Eta Eibarren ondo jan eta jai giroan ibiltzeko aukera gehiago daudela erakutsiz, ACES Europa erakundeak Eibar 2023ko Kirolaren Europako Hiri izendatu zuen.

**86** eibartar heldu ziren 57. Behobia-Donostiaren helmugara.

‘Hijos de Gabilondo’ eraikina birgaitzeko **5** milioi euro jaso ditu Udalak Jaurlaritzatik.





**RODOLFO EPELDE**

*Tronpa-jolea*

**“Instrumentuarekin egindako elefante soinuak liluratuta aukeratu nuen tronpa”**



Eibarko 19 odol-emaileri esker ona azaltzeko omenaldia egin zitzaien.



**HANKAMOTXAK**

*Bertso-eskola*

**“Bertsoak duen armarik garrantzitsuena norberak duen imajinazioa da”**



“Euskadiko Emakume Alargunen Elkarten Federazioaren (IEF) Lorpenak eta erronkak” jardunaldiak antolatu zituen Altzooa alargunen elkarteak.

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEBORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMIAK

*Enkarguak etxera*

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

GAUR

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA  
KONPONKETA  
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN  
AUTOMATIKOAK ETA  
BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren, 9    Tel. 943 20 62 40  
nagore@egaur.com

# abendua 1 2



## JOAKIN GORROTXATEGI

*Hizkuntzalaria*

**“Irulegiko eskuaren aurkikuntzak puntu bat ezartzen du mapa zuri batean”**



## MIKEL LARRAÑAGA

*Alkate-ohia*

**“Euskeria mundu digitalian sartzia izango da hurrengo erronka”**

Eta ia konturatu gabe, urteko azken hilabetera iritsi ginen. Abenduaren lehen asteburuan Euskararen Eguna ospatu genuen eta, honakoan eguraldia aurka izan arren, eibartarrek ondo erantzun zuten eta herrian egin ziren ekintzek jarraipena izan zuten.

Ondoren, tantaka jai egun batzuk eduki eta Durangoko Azoka pasa ondoren, Gabon giroan murgilduta egin diogu aurre urteko azken txanpari. Horrela, Udalak eta herriko dendariak Gabonetako kanpaina jarri zuten martxan, herrian Gabonetako argiak piztu eta Errebalen zuhaitza eta izotz-pista jartzeaz gain,



Klub Deportiboko Krabelin mendi taldekoek “200 Mendi Ederrenak” lana aurkeztu zuten mendi bakoitzaren 10-15 argazki, ibilbidearen deskripzioa, fitxa osotua, mapa eta perfilarekin, besteak beste.

herrian kontsumitzea bultzatzeko ‘Eibar Oparitu’ txartela eskainiz. Gainera, Gabonetan zehar ez dira falta izan Gabonetako parkea Astelena frontoian; barrakak Txaltxa Zelaian, anbulatorioko parkean eta Urkizun; Artisau Azokak Untzagan (Eibart) eta Ipuruako Merkatu Plazan, Bigarren Eskuko Azoka eta Naluaren Truke eta Doako Azoka; Gurutze Gorrriaren tonbola; eta Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria, besteak beste.

Hilaren 17an “Viteritarrak. Hiru belaunaldi medikuntzan” liburua aurkeztu zuten, Antxon Narbaizak Saenz de Viteri mediku-familiaren inguruan idatzitako lana. Bertan Javierren, Isaac semearen eta Albertoren ibilbidea kontatzen du Narbaizak eta herriari egin dioten ekarpena nabarmentzen da. Aurkezpen ekitaldian Alberto Saenz de Viteri bera egon zen eta, ekimena aprobeztatuz, Udalak beste mediku eibartar bat omendu zuen Txopitea eta Pakea sariarekin: Ciriaco Agirre Errasti.

Abenduaren 21ean, San Tomas egunean, ezusteko batekin esnatu ginen, herri guztian zehar euskararen bando berria irakurtzeko aukera eduki baikenuen: ‘Euskara eibartar guztiona’. Izan ere, 40 urte bete ziren ‘...euskaraz eta kitto!’ bandoak argia ikusi zue- netik eta, gaur egun herrian bizi den egoera kontuan hartuta, non hainbat hizkuntza ezberdin erabiltzen diren, bandoa eguneratu zuten.

Josean Urkia **150** aldiz igo da Urkora aurten; Mikel Arriola, berriz, **200** aldiz. **1.000** zuhaitz landatuta agurtu du urtea Baso Biziak-ek.



**CIRIACO AGIRRE**  
Medikua

**“Medikuntzan gauza zehazgaitzen aurka ari gara borrokan denbora guztian”**



**IÑAKI AZKUE**  
Ikaslea Perun

**“Peru herrialde gobernaezina da eta kongresuak herrialdea bahituta dauka”**



Astelena frontoia aurpegi berrituarekin jaso zituen Gabonetako pilota jaialdiak. RAMON BEITIA



**B A N D O A**

*Elkartaria,*

Lingua Vasconica, Lingua Navarroar, Lingua Basca, Lengua Vasca, Lingua Vasca, Langue Basque, мова баска, Basque Language, Baskische Sprache, Baskisch, बास्क भाषा, ภาษากบาส, Wika Ng Basque, Baski, Baszk Nyelv, बास्क भाषा, Basgeg, バスク語 Baskijski Jezyk, лимба баска, Język Baskijski, баскијски језик, Baskiska, འཕྲུལ་ཀླུ་ལྷན་པོ་ལྷན་པོ་, Gjuha e Baskesë, Баскська мова, 巴斯克语, Limba Bască, زبان باسکی, رِبِهْ باسکی د, Língua Basca, Låku Baskees, اللغة الباسكية اللغة, Euskeria, Euskara esaten dioguna:

**es mi lengua  
y tu lengua,  
eibartar  
guztiona**



Elkartaria 22-23-24



Olentzero eta Mari Domingirekin elkarrizketa eksklusiboa egiteko aukera izan genuen eta herritarrekin berriz elkartzeko gogoz zeudela esan ziguten.

'Euskara eibartar guztiona' bandoarekin esnatu ginen abenduaren 21ean.



# Euskararen alde inoiz baino gehiago egin dugu aurten

Pandemia urteak atzean laga eta gero, ekintzaz beteriko urtea bizi izan dugu herrian aurten. Horrela, aurreko urteetan egin izan ez genuena berreskuratu nahi izan dugunez, urte berean ospatu ditugu lehendabiziz Korrika, Tantanez Tantan eta Euskararen Eguna, besteak beste.

**G**ure egunerokoan euskararen erabilera sustatzeko zenbait kanpaina egin dira urtean zehar eta 'Sare sozialetan ere euskaraz' eta 'Erosketa ibilbidea' dira horren adibide. Sare sozialetan ere euskaraz kanpaina urtarrilean jarri zuten martxan Eibarko merkataritza eta bertoko hizkuntza, euskara, sustatzeko. Horren barruan, dendariak horrenbeste erabiltzen dituzten sare sozialetan burutu zen kanpaina abiatu zuten.

Bestalde, aurreko urteetako arrakastari jarraituz, Eibarko Dendarien Elkarteak Erosketa-Ibilbidea kanpaina jarri zuen martxan berriz ere. Horrela, jendea Eibarko establezimenduetan erostera animatzeaz gain, erosketa horietan bezeroek euskara erabilera sustatzea zen asmoa.

## DEBABARRENA INTEGRA-BAT EGINEZ

Programa horrek 16. edizioa bete du aurten. Bazterketa sozialean erortzeko arriskua duten pertsonekin lan egiten duen egitasmoa da, helburua pertsona horien gizarteratzea erraztea eta lan-mundura bideratzea delarik. Fabrikazio mekanikoaren arloan hezitzen dituzte, eta aurten berrikuntza bat sartu dute: euskarazko uler-saioak.

## KORRIKA

AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoa zeharkatuko zuen 22. Korrikak. Euskararen aldeko lasterketa erraldoiak Amurrio eta Donostia lotu zituen, euskara hitzetik ekintzara eramanez. Apirilaren leian pasa zen Korrika Eibartik eta hotza, euria eta txingorra izan bagenuen ere, ehundaka lagunek egin zuten korrika lekukoaren atzetik.

### TANTANEZ TANTAN

Aurten bai. 2020an pandemiagatik ezin izan zen ohi bezala antolatu, baina aurten bai; maiatzaren 21ean iritsi zen Tantanez Tantan, bazterrak euskaraz busti zituen euskararen aldeko olatua. Urkizutik Untzagaraino eskutik eskura eramán zuten euskaltzaleek euskaraz eta ilusioz beteriko gantxilla.

### EUSKALTZAINDIA EIBARREN

Euskaltzaindiak Eibarren egin zuen ekaineko osoko bilkura, hilaren 22an hain zuzen ere. Data berezia izan zen herriarentzat, izan ere, Juan San Martinen jaiotzaren mendeurrena bete zen egun horretan. Horregatik, San Martinek euskararen alde (eta bestela ere) egindako lana gogoratzeko, omenaldia egin zioten udaletxean.

### SORIONEKU

Euskararentzat egun historikoa izan zen azaroaren 14a, Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi Zientzia Elkartek hizkuntza baskonikozko idazkunik zaharrena aurkitu dutela jakinarazi baitzuten: “sorioneku”. Irulegiko Eskua deitu duten piezan aurkitu duten idazkuna ikertzen ibili da Joakin Gorrotxategi hizkuntzalari eibartarra.

### EUSKARALDIA

Euskaraldiaren hirugarren edizioa egin da aurten eta Eibarren 1.800 lagun baino gehiagok (1.500 ahobizi eta 300 belarriprest) hartu zuten parte. Era berean, 100 erakunde inguruk eman zuten izena ekimenean.

### EUSKARAREN EGUNA

Inoizko egitarau beteenarekin, ekitaldiz lepo iritsi zitzaigun aurtengo Euskararen Eguna. Goizean zehar margotu zuten horma-irudiak zer ezkututzen zuen jakin genuen lehenengo: Trabesa, ekainaren 22an Eibarren euskararekin lotuta egingo den ekitaldiaren aurrerapena. Ondoren, hainbat ekintza egin ziren haur eta helduentzat.

Horren harira, ‘Boteprontuan euskaraz’ ekimena abiatu zuten herriko euskaltzaleek. Eibarko gazte mugimendutik datozen hainbat lagunek euskararen inguruko dinamika bat ipini nahi dute martxan eta Euskararen Egunaren egitarauan ekarpen handia egin zuten, jarraitzeko asmoz.



Tantanez Tantanen ikurra den gantxila Urkizun urez bete eta Untzagara eramán genuen eskurik esku.



Euriaren eta hotzaren aurrean harrera beroa egin zion herriak Korrikari. AEK

# “Normaltasunaren” itzulera baita euskalgintzan ere

Bi urte gogor, arraro eta ezegonkorren ostean, 2022ko udaberriak “normaltasuna” ekarri zigun behingoz. Sanjuanak “normal” ospatzeko aukera izan genuen eibartarrok eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Juan Sua eta Euskal jaialdia egiteko aukera izan zuen.

**G**ogotsu geunden denok berriz ere elkartu, abestu, dantzatu eta bizitzaz gozatzeko. Halakotxea izan zen 2022ko uda: bizitzak bi urtez ihes egin izan baligu bezala bizi izan dugu. Ohiko jardueretara itzultzeko aukera izan dugu denok, baina bi urte hauetan ikasi, egokitu eta berritu ere egin gara eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen jarduna ere sasoi berrietara egokitu da, programak, ekintzak, zerbitzuak eta produktuak gizartean dauden beharretara moldatuz.

## Ongietorri programa berriz ere martxan

2020ko udaberrian bertan behera laga behar izan genuen Ongietorri programa, kulturantzatasuna eta elkarbizitza lantzeko helburua duena. Bagenekien ez zela betiko agurra izango, Eibarren ezinbesteko programa zela ikusten genuelako kalera irteten ginen bakoitzean, baina baliabide ekonomikoak ere ezinbestekoak





Sagardo egunaren bueltan ...eta kitto!-ren bazkide eta lagun-talde handia mugitzen da. S. HERNANDEZ

ziren. Udalaren laguntzari esker, 2022-2023 ikasturtean berriz ere abiatzea lortu dugu eta pozarren esan dezakegu auzo guztietan osatu direla taldeak, harrera ezinhobea izan duela eta aurreikuspenak benetan onak direla.

Berbetan mintzapraktika-programaren garapenak ezinhobea ari du izaten. Aurten berbalagun berri askok eman dute izena. Adin, genero eta jatorri desberdinetako kideak hurbildu dira mintzapraktikako taldeetara, talde berriak osatu dira eta zenbait kuadrillek ere elkarrekin eman dute izena, guztirako parte-hartzaile kopurua asko handituz.

Euskeraz Primeran! Merkataritzan eta Ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko programaren bidez hainbat kanpaina garatzeko aukeraz dugu, horietako asko herriko beste eragileekin batera (Dendari Elkarte, Eibarko Udala, Eibar Merkatalgune Irekia...); tabernetan euskal musika ipintzeko kanpainak egin ditugu, euskarazko ohiko esaldiak eta hitzak biltzen dituzten pos-

terrak eta mantelak banatu ditugu, sare sozialetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak egin dira, gilda-lehiaketa...

Baina, bien bitartean, Aratosteak ere ospatu genituen play-back lehiaketa online eginez, Euskararen Transmisio Mintegia egin genuen Euskal Herriko dozenaka lagun Armeria Eskolan elkartzuz, ipuin- eta gutun-lehiaketak, bertso-lehiaketak, Emakumeen eguneko egitarauan parte hartu genuen, familien arteko ginkana, ikastaroak, hitzaldiak, ikuskizunak antolatu ditugu eta herrigintzan aktiboki parte hartu dugu: Tantan ez Tantan, San Juan sua, Euskal Jaialdia, Bertso-afaria, Kittonbolia, Sagardo Eguna, Euskaldia, Euskararen Eguna...

2023a ilusioz eta gogoz hartuko dugu, bide luzea baitugu egiteko, baina herritarrekin batera bidea egiteak indarra emango digu urrutira eta hobeto heltzeko. Dantzatu dezagun mingaina euskaraz, bagara eta gai euskara erdigunera eramateko. Urte berri on!

**Ongietorrik harrera ezinhobea izan du eta aurreikuspenak onak dira**

**Hainbat kanpaina egin dira merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko**

## Astelenak binakako txapelketako beste bi jardunaldi hartuko ditu jaietan

Gabon egunean sarrera handia izan zuen pilotaren Katedralak, lepo beteta giro berezia eskainiz aldi berean. Eta Gabon eta Urte Berri inguruko egun hauetan, ohikoa denez, Astelenak bere atekak zabaltzen jarraituko die profesionalen arteko jaialdiei, bai Urte Berri egunean eta baita Errege egunean ere. Urtarrilaren 1eko programazioan binakako txapelketako Laso-Imaz vs Ezkurdia-Martija izango da ekitaldiko partidu nagusia. Aurretik ere izen handiko pilotarien jokoaz gozatzeko aukera izango da, txapelketatik kanpo geratu diren Elezkanok eta Irribarriak hartuko baitute parte: bizkaitarrak Bikuña



Gabon egunean oso sarrera ona izan zuen Astelenan antolatutako jaialdiak.

izango du lagun eta Aramakoak Oier Etxebarria. Azken partiduan Victor-Gaskue eta Dario-Arbizu bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Errege egunak, bestalde, Eskuz atzelariaren debuta izango du protagonista lehenengo partiduan. Elezkanok lagun duela, Dario-Bikuña bikotea izango du aurkari bere estreinaldian profesionalean.

Jarraian, binakako txapelketaren barruan, Urrutikoetxea-Albisu eta berriro ere Ezkurdia-Martija bikoteek jardungo dute, nor baino nor. Eta, egun horretako azken partiduan, promozio mailako txapelketaren barruan, Zabala-Gaskue eta Zubizarreta III-Elizegi bikoteen arteko norgehiagoka izango da jokoa.

## Uretako San Silbestreak 10. edizioa biziko du bihar Ipuruan

Ia bi orduko iraupena izango duen X. Uretako San Silbestrea izango da jokoa bihar Ipuruako kiroldegian. Goizez egiten den ekitaldi hori 09:15ean hasiko da eta 10:55ean amaituko, igerilekuari giro berezia emango dioten mota guztietako probekin. Parte-hartzaileek probak "banaka, binaka eta taldeka" egiteko aukera izango dute eta egin beharreko lanak bi motatakoak izan daitezke: A aukera (100x100, C/1.45) eta B aukera (100x50, C/60). Aukera luzeenaren alde egiten dutenek goizeko 08:00etan hasiko dira euren probak osatzen.

## Eibarko Txirrindulari Elkartean hasi dira zikloturisten lizentziak berritzen

Abenduaren 23tik interesatu guztiek aukera dute 2023rako zikloturista lizentziak berritzeko, bai e-mail bidez clubciclistaeibarres@gmail.com helbidera bidalita edo baita Eibarko Txirrindulari Elkarteak Pagaegi kaleko 3an dituen bulegotik pasatuta ere. Korreoz egiteko inte-

resatuek pdf artxibo baten bidali beharko dute transferentziaren ordezkagiria, euren datu eta N.A.N.a-ekin batera. Beste guztiek lokaletik pasa daitezke urtarrilaren 11tik martxoaren 15era arte, 19:00etatik 20:00etara; horiek ere transferentziaren ordezkagiria eramanez.



Eibarko Txirrindulari Elkartean urteroko zerbitzua jarraitzen dute eskaintzen.



## Aurtengo San Silbestre korrikaldia eguerdira aurreratuko dute

San Silbestre herri-korrikaldia Aixolatik herri barrura aldatu dute antolatzaileek eta probaren ordua ere aurreratu egin dute, arratasaldetik eguerdi aldera pasatzeko. Eibarko Kirol Kluben babespean jokatuko den 31. edizioa Errebalen hasiko da 13:00etan, Coliseok hartuko duen Eibarko Kirol Sarien edizioa amaitu eta gero. Korrikaldi herrikoian 5 kilometroko distantzia osatuko dute, antolatzaileek dioten bezala "3'5 kilometro guztiok elkarrekin

egiteko". Aurrekoaz gain jendeari "bertara zure klubeko edo kuadrillako kamisetarekin" hurbiltzea ere gomendatzen zaio. Jarraian, 13:30ean, erromeria izango da Untzaga plazan, Jainagak eta Narbaizak girotuko duten jai-ekitaldiarekin.

San Silbestre lasterketa 13:00etatik 14:00etara egingo da, honako ibilbidearekin: T. Etxebarria, F. Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Karmen, Barakaldo, Arragueta, Errebal eta J. Etxebarria.



Aixolatik herrira ekarri dute San Silbestrea.

## Urte Berriari ongietorria Urkon egiteko deialdia Deportibotik

Ohikoaren bidetik, 2023. urteari ongietorria egiteko deia egin dute Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordetik. Prestatutako egitarauari goizeko 09:00etan emango zaio hasiera Depor aurretik, talde-argazkia egin eta, jarraian, Itzio-Arrajola-Aritxulueta-Elorretagana-Ameztiburu-Urko ibilbidea egiteko. Parte-hartzaileak behin goian daudela, talde-argazkia



egingo dute 10:30 bueltan. Egunguztian zehar taldeak osatuko dira Urkora igotzeko, horretarako hainbat ibilbide aukeratuz: Amaña-Lindari-Elorreta-Urko izan daiteke bat; beste bat Milaflores-Iturburu-Amazabalegi-Kateen pausua-Urko izan daiteke; edo Ixuatik zuzenean doana. Mendi-batzorde horrek urte osorako prestatutako egutegiaren barruko lehenengo irteera da.



# LERUN

## Grupo Easo Motor

**AUTO BERRIAK**

**AUTO KONPONKETA**

**2. ESKUKO AUTOAK**

ventas@fordlerun.com

 @fordlerun

Deba kalea, 12 (ELGOIBAR)

Tfnoa. 943-742591

626174862 



"La ventana indiscreta" akaso? OSKAR BAGLIETTO

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

	5			2	7
		5	1		8
1			8 7		
			2		5
3	9			4	1
6		8			
		3 5			9
4		1	6		
5	7			6	

P	E	N	R	Z	A	G	O
E	R	R	A	Z	A	G	O
E	T	A	G	O	A	R	R
V	N	A	G	O	A	R	R
S	O	L	U	Z	I	O	A
S	O	L	U	Z	I	O	A
S	O	L	U	Z	I	O	A
S	O	L	U	Z	I	O	A
S	O	L	U	Z	I	O	A
S	O	L	U	Z	I	O	A

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**


		4	6	1	3		
2			7	1	8		
				2		5	
3	8					1	
	2	5			6	7	
	1					5	4
5			9				
	6	1		4			3
	4		2	7	5		

soluzioa

S	O	L	U	Z	I	O	A
E	R	R	A	Z	A	G	O
E	T	A	G	O	A	R	R
V	N	A	G	O	A	R	R
S	O	L	U	Z	A	G	O
S	O	L	U	Z	A	G	O
S	O	L	U	Z	A	G	O
S	O	L	U	Z	A	G	O
S	O	L	U	Z	A	G	O
S	O	L	U	Z	A	G	O



**AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK**



**LABIRINTOA**

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **2an:** 20:30
- **4an:** 19:00

#### “Misión H2O”

Zuzendaria: Alvaro Caceres



**ANIMAZIOZKOA.** Umeentzako aproposa, hainbat abenturekin tarteko. Bahiketak eta desagertuak ere badira.

### 2 ARETOA

- **2an:** 20:30
- **3an:** 19:00
- **4an:** 19:00 (Antzokia)

#### “3D Avatar. Sentido del agua”

Zuzendaria: James Cameron



**FANTASTIKOA.** Zientzia fikzioa ata abenturak nahasten ditu, extralurtarren istorioekin. Aurreko baten sekuela. 3D-n.

### ANTZOKIA

- **2an:** 20:30
- **3an:** 19:00 (1 Aretoa)
- **4an:** 19:00 (2 Aretoa)

#### “Inspector Sun”

Zuzendaria: Julio Soto



**ANIMAZIOZKOA.** Thriller girokoa da familian ikusi daitekeen filma. Hilketak eta intsektuak protagonista.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAIKE!!!** Ederki ospatu genduan zure eguna!! 2 musu haundi famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MIGUEL**, hónek 30 urte "netuak" betetziagaittik! Zure bulegoko kidiak opor zorionsuak opa deutzuguz.



Zorionak eta musu potolua, **JARE**, zure 7. urtebetetzian. Famelixa guztiaren partez. Jarraitu holan, alai eta jatorra izaten.



Zorionak, **MONTXO**, etzi urtiak beteko dozuz-eta! Ondo ondo ospatu. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IKER**, txapeldun!!! 8 urte bete dozuzelako gaur. Patxo potolo bat zure famelixaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak, **LUR**, 24an 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Naike, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak, tio **IÑIGO** (eguenian 52 urte) eta **IKER** (urtarrillaren 11n 22 urte). Ondo ondo ospatu! Musu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, **NAHIKARI** eta **JULENE**, eguaztenian 3 urte beteko dozuez-eta. Laztan haundi bana ama eta famelixakuen partez.

\*\*\*  
**FUNEUSKADI**  
Single Auzite

\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funerariak

\*\*\*  
**TANATORIO TIBAR**

\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**  
Tanatorio Mugica  
Bilbo Auzite

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Elbako bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xizillon, 4/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ernuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
--	--

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

## Jon Ander Odriozola Goiricelaya

2022/12/18

**MILESKER** lagun, lan-talde eta familiako guztioi zuen laguntza eta babesarengatik. **AIPAMEN BEREZIA** Mendaroko Etxeko Ospitalizazioa, "Viajeros en ruta" eta Nikorentzat.

**ESKERRIK ASKO BIHOTZ BIHOTZETIK**  
- IRAIA ETA MIREIA -

# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Etxea hartuko nuke alokairuan. Gutxi gorabehera 600 euroren bueltan. 695752281.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Ilogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Bittor Sarasqueta kalean. Itxita. 639728126.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. 649025614.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 624604285.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauetz eta ospitalean ere. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 722408667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 633173215.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta umeak eskolara eramateko. 688779828.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 633694917.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldean laguntzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (ikastaroa eginda). 643427770.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624108612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624356807.

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia sukalde-laguntzaile jardunean. 643508332.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta zaintza lanetarako. Orduka. 643508300.

## 4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. 661955980.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

# ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

PROMOZIO BERRIA TITANIOZKO INPLANTEETAN  
URTARRILAREN 31-RA ARTE



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943 36 63 77

RPS 181/19

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

### M<sup>a</sup> MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 esk.  
Tel. 943 20 17 03  
Fax. 943 70 20 49  
m\_ari\_sanz@hotmail.com

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Gaur  
gure **kontu.**